


BALAIKE

200 pta.

69 zenb.



● **Valentin Manterola:**
"Zumaia energia berezia duen herria da"

● **Iragan**
industrialaren azken arrastoei agur

● **Joxe Antonio Alberdik**
Zumaiako Futbol Taldeko lehendakaritza utzi du

● **Eusko Jaurlaritzak kirol portuaren kontrola nahi du**


Urolthermik

Arotzia Metalikoa



Urolthermik
Carpintería metálica

POLIURETANOZKO LEIHOAK PERFILTHERMIK SISTEMA



- Aluminiozko leihoak (zubi termikoa etenda)
- Aluminiozko barandak
- Pertsiana mallorcarrak
- Garajetako metalezko atek eta subesiak

Santixo auzoa, 20. pabilioia
Tel./Faxa: 943 - 86 03 20 ZUMAIA

ERROTA



OPIL OKINDEGIÀ

*era fuztietako tarta
eta pastelak*

LABEA:

Santixo auzoa TEL: 943 86 00 00

Erribera, 2 TEL: 943 14 30 01

Juan Belmonte, 5 TEL: 943 86 03 00

Basadi, 4 TEL: 943 14 32 21

P. Etxezarreta, 42 TEL: 943 86 25 28

Alai, 8 TEL: 943 86 25 60

Foronda kultur etxea
tel.: 943 86 04 12
faxa: 943 86 17 42
e-posta: baleike@yahoo.com

Argitaratzailea

ZUMAIKO GAZTE BATZORDEA

Administrazio batzordea

Xabier Azkue
Uxua Ostolaza
Aintzane del Pilar

Erredakzio batzordea

Antxoka Agirre
Esther Aizpurua
Eneko Dorronsoro

Joseba Ossa

J.L. Romatet

Josu Waliño

Gorka Zabaleta

Kazetariak

Antxoka Agirre
Gorka Zabaleta
J.L. Romatet
Josu Waliño

Kolaboratzaileak

Ostarrena Zine Klub
taldea, Ingurugiro tailer
eskola, Miriam Romatet,
Jon Manzisidor,
Fototeka,

Andoni Ormazuri e.a.

Komikia

Nuria del Buey Ramos

Argazkiak

Baleike

Diseinua

Juan Luis Blanco

Maketazioa

Argi Aizpurua

Hizkuntz zuzenketa

Xabier Azkue

Imanol Azkue

Banaketa

Andoni Ormazuri

Publizitatea

Uxua Ostolaza
(943 861056)

Inprimategia

Gertu Inprimategia
(Zubillaga - Oñati)

Tirada

1.000 ale

Lege gordailua

SS-405/94

ISSN

1136-8594

Baleikek ez du bere gain hartzen aldizkarian adierazitako esanen eta iritzien erantzukizunik.

Imajinazio eta boterea



Gorka Zabaleta

Duela 32 urte "imajinazioa boterera" oihukatzen zuten Paris zein Madrilgo kaleetan, barrikaden atzetik. Gaur, imajinazioak beldur ematen die, eta auzipean jarri dute. Behin boterea eskuratuta, ez baitago imajinazioarentzat lekurik.

Duela pare bat aste solidarioek guztion harridura eta mirespena eragin zuen beste ekintza bat burutu zuten. Hamaikagarrena. Tele5 kate espainolaren "Gran Hermano" saio sonatuko etxean sartzea lortu zuen solidarioetako batek, euskal presoen eskubideak aldarrikatzeko. Programa horretan, etxean gertatzen den guztia ematen omen dute baina, itxura denez, komeni zaien guztia bakarrik aireratzen dute, Tele5-k moztu egin baitzuen emisioa gertatutakoaz konturatu bezain pronto. Etxekoei, ezer geratu ez balitz bezala jarraitzeko agindu zieten. Hori, zentsura da, noski. Solidarioen ekintzak oihartzuna izan zuen hurrengo egunean euskal komunikabideetan, baina Espainian isiltasuna nagusi.

Bitartean, Giraldilla famatuak epaitzen ari dira Sevillan. Euren aldarrikapena mundu osora zabaltzea lortu zuten hauek, eta orain, gogotik ordainarazi nahi diete ideiak zabaltzeko imajinazioa erabili izana, boterea eta imajinazioa duela 32 urte banadu baitziren, Paris edo Madrilgo kale ezkutu batean, sutan zen barrikada baten atzean azken musua eman eta gero.

Premiazko telefonoak

Kultur Etxea	943 86 10 56	Ludoteka	943 14 32 64
Polikiroldegia	943 86 20 21	Tren geltokia	943 86 11 27
Gurutze gorria	943 86 10 93	Taxi geltokia	943 86 13 60
Udaletxea	943 86 50 25	Bake epaitegia	943 86 00 67
Gizarte Zerbitzuak	943 86 22 00	Posta	943 86 15 00
Osasun zentrua	943 86 08 62	Udaltzaingoa	943 86 18 70
San Juan Egoitza	943 86 12 73	Pilotalekua	943 86 21 72
Pentsiodunen Egoitza	943 86 17 00	Larrialdi zerbitzua	943 46 11 11
Musika eskola	943 86 11 83	Txomin Agirre euskaltegia	943 86 02 48


Argitalpen honen edizioko laguntzaile:



Zumaiako Udala



CAJA LABORAL
EUSKADIKO KUTXA



gizarte-ekintza
obra social



GIPUZKOAKO
FORU ALDUNDIA



MIRIAM ROMATET

Internet, txokolatinak eta limonada

Ezagutzen nauten guztiek dakite zenbat maite ditudan ordenagailuak (nire saguarekin ditudan borrokak epikoak dira); agian horregatik izan naiz beti intsumisioa internet edo posta elektronikoari dagokionez.

Baina errare humanum est (edo horrelako zer bait), tira, internetak oraindik gehiegi esaten ez badit ere, e-maila ezagutu dut, eta bai, engantxatu nau. Lanaren aitzakian (bene-benetan oso baliagarria zait) goiz eta arratsaldero bizpahiru aldiz begiratzen dut ea kartatxo itxirik badudan nik irakurri zain.

Eta halako batean hemen duzuen hauxe iritsi zitzaidan, ingelesez, eta itzulpena presakakoa eta eskas-eskasa izanik ere, ea gustatzen zaizuen:

“Gaurkoan bertan behera uzten diot heldu izateari. Berriz ere zortzi urteko haur baten erantzukizunaren jabe izatera itzuli nahi dut. McDonald'sera joan nahi dut, hiru tenedoreko jatetxea dela sinisturik. Lokatz berriak sortutako putzuetan txotxak nagibatzen ipini nahi ditut, eta harritxoekin pasaleku bat eraiki. Txokolatinak dirua baino hobekak direla sinetsi nahi dut, haiek jan egiten baitituzu. Haritzondo baten azpian etzan nahi dut, eta udako egun bero batean hantxe nire lagunekin limonada postu bat zabaldu.

Bizitza ximplea zen garaira itzuli nahi dut: ezagutzen genituen gauza bakarrak koloreak, biderketak eta ahokorapiloak ziren, baina horrek ez gintuen kezkatzen, ez baikenekien ez genekienik, eta bost axola zitzaigun. Zoriontsu bakarrik izaten genekien, ez baikenituen, zorionez, ezagutzen kezkatu edo haserretu gintzaketan gauzak.

Mundua justua dela pentsatu nahi dut. Ez dut nire egunerokoa nahi: ordenagailu borrokak, paper zahar mendiak, berri ilunak, bankuan dirua dudan baino egun gehiagoz nola iraun asmatzea, mediku ordainagiriak, berriketa hutsala, gaixotasuna eta maite ditugunen galera. Irribarreen eta besarkaden indarrean sinetsi nahi dut, hitz goxoak, egia, justizia, bakea, ametsak, irudimena, gizatasuna eta elurretan aingeruak marraztea.

Beraz, hemen dituzue nire txeke liburua eta autoko giltzak, visaren ordainagiriak eta bankuko saldoak. Heldu izateari ofizialki uko egiten diot. Eta honi buruz gehiago eztabaidatu nahi izanez gero, aurrena harrapatu egin beharko nauzue, zeren... To! Zure txanda”



xirula
Argazki eta bideo erreportaiaik
Errebelatzeak
Kamarak
Musika

Eribera kalea z/g Tel. 861705

B. Etxegarai 2, behea
943 86 27 14



GAZTEEN ERROPA

ZALLA
Taberna - Erreteria

- * plater konbinatuak
- * otartekoak
- * oilasko erreak

San Pedro, 4 Tel. 862387



Arrain eta mariskoak

MARES
Barazkiak eta aurrez prestatutako jakiak

7 MARES IZOITUAK Zuloaga plaza, 1
Tel. 862309



ALBAITARITZA KLINIKA

DIEGO SAN SEBASTIAN BARANDIARAN
IÑAKI GARMENDIA MENDIZABAL
-ALBAITARIAK-

Basadi, 7 behea
Tel. 143310
Tel. mugikorra: 908- 775508

Larrialdiak
- 24 ordu
- zeure etxean

dekorazioa

ALBERDI

- Eskaiola
- Pladur-a

696 726188
943 143261

Sei hilabeteko zigorra "Txato" zaindu zuten bi poliziarentzat eta beste biak aske

Bizkaiko Lurralde Entzutegiak sei hilabeteko kartzela zigorra eta beste horrenbeste denborako kargugabetzea ezarri zien atzo Bizkaiko Informazio Brigadako buru den Mauricio Pastor eta zerbitzuburu Manuel Alvarez poliziei, Xabier Kalparsoro "Txato"ren heriotzean zuhurtasun gabezia arriskutsua leporatuz. Horrez gain, aipatu poliziek 6.250.000 pezetako kalte-ordaina eman beharko diote Maite Golmaiori, hildakoaren amari. Zigor-tuekin batera apirilaren hasieran egindako epaiketan akusatuen aulkian eseri ziren beste polizia biak absolbitu egin ditu Entzutegiak.

Entzutegiaren ustez, "hiritar arrunt batek aurreikus zitzakeen leihoak zabaltzea eragozten zuen inolako neurririk gabe funtzionario bakar baten zaintzapean eta bere mugimenduak zailtzeko eskuburdinik ipini gabe gela batean utziz gero, ETA erakunde armatuko kide atxilotu batek leihotik jauzi egin zezakeela, nahiz eta bere bizia arriskuan jarri". Hala ere entzutegiak ez du zigortutakoen jokabidean dolurik ikusi "ez baizitzaien zitekeena iruditu gelako leihotik jauzi egingo zuenik".

Epaileak zuhurtasun gabezia ikusi du akusatutako lau polizien arteko biren jokabidean, baina, hala ere, zigor txikiena ezarri die, sei hilabetekoa. Epaiketan egondako lau akusazio partikularrek, sei urteko kartzela zigorra, sei urteko inhabilitazioa eta 25 milioi pezetako kalte-ordaina eskatu zuten. Epaiak dioenez, akusa-



zioek zuhurtasun gabeziari ezgaitasun profesionala gehitu nahi izan bazioten ere, Entzutegiak "zuhurtasun gabezia

arrunta" besterik ez du ikusi Mauricio Pastor eta Manuel Alvarezzen jokabidean. ◀ **JOSU WALIÑO**

Laugarren Udako Kirol Eskola antolatu da Urola Kosta mailan

Laugarren urtez jarraian, Urola Kosta bailarako biztanleek Kirol Eskolaren ekintzetan parte hartzeko aukera izango dute uda honetan. Uztailaren 4tik 7ra bitartean ospatuko den eskola honen antolatzaileak Urola Kostako Udal Elkarte eta bailarako bost Udalak dira, Zumaiakoa barne delarik.

Kirol Eskola honen barne emango diren ikastaroak honako hauek izango dira: futbola, eskubaloia eta jolas kirolak irakasle eta monitoreentzat, surfa, piraguismoa eta arraun mugikorra 12 urtetik gorako gazteentzat eta pilota 14 urtetik gorako gazteentzat. Eskolak irauten dituen lau egunetan, haur parkeak izango dira haur eta gaztetxoentzat. Baserriko kirolak eta herri kirolak izango dira haur parke horietako gaiak. Zumaia urtailaren 7an helduko da eta Eusebio Gurrutxaga plazan izango da goizeko 11.30etan. Ekitaldi horien barne ere mahainguru eta hitzaldi ugari izango dira bailarako herrietan. Zumaia dagokionez, uztailaren 5ean hitzaldia izango da Oxford aretoan: alde batetik, Jose Manuek Gonzalez Aramendi sendagilea Kirola eta osasunaz arituko da; ondoren Iñaki Pikabeak jorratuko duen gaia Kirol psikologiarena izango da.

Kirol Eskola honetan parte hartzeko interesatuta daudenek Udaleko Euskara Zerbitzuan edo Lubaki Kiroldagian eman dezakete izena. Matrikularen prezioa ikastaroko 2.500 pezetakoa da, prezio horretan bazkaria eta kamiseta bana sartuta daudelarik. Ordainketa Euskadiko Kutxaren "Udako kirol-eskola" kontuan egin beharko da, 3035.0029.64.0290030916 zenbakian. Izen emateko epea ekainaren 27an amaituko da.

Alberdi
Gizonezkoen moda



Erribera kalea, 6
Tel. 861155

ANA
ETXEKO ZAPIAK



Ignacio Zuloaga enparantza Tel. 943 861157

Antonio Etxabe
Gizonezkoen erropak



Zumbillo, 4 Tel. 861407

Eusko Jaurlaritzak kirol portuaren kontrola nahi du

Zumaiako Kirol Portua elkarteak aurreikusi baino 190 milioi gehiago gastatu ditu. Jaurlaritza diru hori jartzeko prest agertu da, baina akzioen kontrolaren truke. Udala ez dago ados.

Zumaiako Udala eta Eusko Jaurlaritzako portuetako arduradunen artean giroa zeharo nahastu da azken asteotan. Izan ere, Zumaiako Kirol Portua elkarteak aurrekontuetan zehaztu baino 190 milioi gehiago gastatu ditu, likidazioa egiterakoan agertu denez. Zumaiako Udalak garbi du diru hori Eusko Jaurlaritzak jarri behar duela, lanak ordaintzea berari baitagokio. Eta Eusko Jaurlaritza ordaintzeko prest dago, baina oraingoan zerbait nahi du trukean: kirol portuaren kontrola.

Zehazki, 191.250.974 milioi dira Zumaiako Kirol Portua elkartearen zor dituenak. Zati handiena, 132.226.867 milioi, hasieran aurreikusi ez ziren lanen ondorioz etorri da. Hau da, hasierako aurrekontuetan zehaztutakoa baino %8 gehiago gastatu dela. Besta zatia, 59.024.107 milioi, 1998an BEZaren legean gertaturiko aldaketak eragin du. Ordura arte, elkarte mota honek ez zuen zerga hori ordaindu beharrik; 1998tik aurrera, ordea, bai. Eta Eusko Jaurlaritzak 1998an emandako subentzioak ez zuen aldaketari hori aurreikusi. Hortik dator zorra.

Egoera normalean, Eusko Jaurlaritzak beste subentzio batekin egingo lioke aurre kopuru horri eta kitto. Baina ez

da horrela gertatu. Zumaiako Kirol Portua elkarte bi aldeek osatzen dute, Udalak eta Eusko Jaurlaritzak, eta ordezkaritza erdibana dute banatuta. Elkarrearen kapitala ere, erdibana jarri zuten –bakoitzak bost milioi–. Rikardo Peña da administrazio konseiluko lehendakaria. Hona hemen Eusko Jaurlaritzako portuetako sailak egindako proposamena: kapitala gehitzea. Hau da, Eusko Jaurlaritzak

132 milioi horiek jarriko lituzke, baina akzio modura. Horrek zer esan nahi du? Eusko Jaurlaritzak akzioen %98 izango lukeela, eta Udalak %2 baino ez.

Portuetako arduradunek esan dute horrek ez lukeela botere banaketa aldatuko, eta administrazio batzordeak orain arte bezala jarraituko duela, baina garbi dago estatutuak goitik behera aldatzeko eskubidea izango luketela, hala komeniko balitz. Kirol portua kontrolpean izango lukete.

Zumaiako Udalak erantzuna eman behar dio Jaurlaritzari datozen egunotan, baina Rikardo Peña alkateak aurreratu digu ez dutela proposamen hori onartuko.

◀ **GORKA ZABALETA**

Rikardo Peña

“Joko zikina erabiltzen ari direla esango nuke”

❑ **Zor hori zergatik ez du Jaurlaritzak subentzio baten bidez ordaintzen, orain arte bezala?**

Eusko Jaurlaritzak ordaindu izan dituen diruak subentzio moduan eman ditu. Dena ordaintzekotan. Baina badirudi une konkretu batean euren politika zuzendu nahi dutela, edo beste era batera planteatu nahi dutela. Euskal Herriko portu guztiak kontrolatzeko eta ustiatzeko elkarte

bat sortu nahi dute orain. Planifikazio horren arabera, guri proposatu digute falta diren 190 milioi horiek subentzio modura eman beharrean, kapitala zabaltzea.

“Euskal Herriko portu guztiak kontrolatzeko eta ustiatzeko elkarte bat sortu nahi dute orain”

❑ **Horrek zein ondorio izango luke?**

Horrek suposatzen du Kirol Portuan dagoen botere oreka apurtu egiten dela. Kapital gehikuntza egin nahi dute beraiek gehiengo inportante bat izateko eta kontrol guztia edukitzeko. Eta guri ez zaigu ongi iruditzen. Akziodunen Batzar Nagusiak onartu egin behar du beraien proposamena,



Itzurun, 1 Tel. 143224



Okindegia eta gosariak.

Kale nagusia, 2 Tel. 861521



AUTOS ZUMAIA

Urola plaza 3-5
Tel: 943 86 14 85



170 amarre daude salduta

Uztaila amaierarako amaituta egongo dira hirugarren faseko lanak, eta zaila izango bada ere, jabetxe bat lanean has daiteke abuztu hasieran. Une honetan hor joango diren lokalen %40ahartuta daude jada, eta gehienak ostalaritza sektorekoak dira. Bestalde, amarrei dagokionez, une honetan 200 daude jarrita eta 170 inguru salduta. Eta irailerako espero da 200 horiek betetzea. Orduan hasiko litzateke hurrengo faseak osatzen. Egia esan, ez genuen horrelako arrakasta izatea. Guk aurreikusitako bost urte beharko zirela amarre guztiak saltzeko, eta lehen urtean %40a iritsiko gara.

eta batzar horretan nik dut kalitatezko botoa, eta ez dut onartzen. Eusko Jaurlaritzak badaki beraiek ordaindu behar dutela falta dena. Gainera, kopuru hori onartuta daukate aurrekontuetan, ez da diru faltagatik. Beraiek aprobetxatu egin nahi dute egoera hau elkartearen kontrola beraien esku edukitzeko, eta guk hori ez dugu onartzen.

B Ez zaizu iruditzen joko zikina erabiltzen ari direla?

Baietz esango nuke. Eta ez zait logikoa iruditzen. Uste dut une honetan departamentu horretako buruek ez dutela bizi guk herrian izan dugun eztabaida luzea, eta ez dituzte kontuan hartzen guk ditugun konpromisoak herriaren aurrean. Berriak dira, planteamendu berri batzuekin etorri dira, eta badirudi gu sobera gaudela,

edo oztopo bat garela. Eta alderantziz da, guk denok badakigu zenbat borrokatu garen proiektu hori aurrera ateratzeko, baina prozesu horretan guztian ere konpromiso batzuk hartu ditugu herriarekin, eta ez gaude edozer onartzeko prest.

“Planteamendu berri batzuekin etorri dira, eta badirudi gu sobera gaudela, edo oztopo bat garela”

B Baina ez al zen aurreikusitako zehaztu baino gehiago gastatu zitekeela. Ez al zenuten erabaki balizko desfase horri nork egin beharko liokeen aurre?

Hor ez dago inolako zalantzarik. Lanen kudeaketa Zumaiako Kirol Portuak eraman ditu, baina denok

dakigu finantzazioa Eusko Jaurlaritzatik datorrela. Zumaiako Kirol Portua diru hori bideratzeko tresna bat baino ez da. Inork ez du hori zalantzan jartzen. Gertatzen da orain dauden zuzendari berriek ez dutela prozesu osoa ezagutzen, eta egoera aprobetxatu nahi dutela. Beraiek ez dute ukatzen ordaindu behar dutenik, baina orain arte egin beharrean, beste era batera egin nahi dute, elkartearen kontrola lortzeko. Gainera, Udaleko kontseilari guztiak ados gaude ez dugula txakurtxiki bat ere jarriko. Eta gure alderdiko arduradunak izan arren, guk ez dugu amore emango. Eta ezagutzen banauzue, badakizue nik garbi ikusten ez dudana bitartean ez dudala amore emango, nahiz eta nire alderdikoa izan. Hori edozeinek ez du onartzen.



Azkue Autoak

Estazioko kalea, 19
Tel. 861433
Faxa: 861067



AUTO-ESKOLA



- Gida baimen guztiak ateratzeko baimendua

- Praktika eta azterketak Azpeitian

- GURE HELBURUA: Gidari trebe eta profesionalak egitea

ZUMAI A

Basadi, 12 behea Tel. 861018



San Juan Egoitzako plazatxoaren inaugurazioa

Pasa den maiatzaren 24an inauguratu San Juan Egoitzako plazatxo berria. Egoitzako aiton-amonek beharrezkoa zuten hau bezalako leku bat beren paseoak egiteko, egoitza inguruan ez baitzuten beste tokirik bertako aldapak ezik. Inaugurazioan izan ziren, besteak beste, Foru Aldunditik Ramon Jauregi, udaletik Rikardo Peña eta Montse Arana eta baita plazaren arkitektoa, Jose Ignacio Martinez de Luco. Jose Etxeberria apaizak plaza bedeinkatu ondoren, alkateak plaza inauguratzeari ekin zion. Egoitzako aiton-amonek badute orain paseatzeko leku bat. Ze urtarotan gauden kontutan hartuta, eta landareek sabai natural bat eratu arte, intsolazioen aurkako borroka egin beharko dute bertako biztanleek.

Kofraiko terraza arriskutsua

San Telmoak pasa eta egun batetara, Kofraiko terraza apuntalatu zen udalaren aginduz. Jakina zen terraza hau ez zegoela bere egoera onenean: poste barneko burdina kanpoan, hezetasunak jota, etab. Hori dela eta, udalak galazí egin zuen festetan inor terraza gainean egotea baina ez momentu horretan arrisku handia zegoelako. Udal arkitektuaren esanetan, nahikoa zen San Telmotan ehun pertsona inguruko musika entzunaz terrazan saltoka hastea, hau denbora gutxira bertan behera erortzeko. Hemendik gutxira terraza egoera txukun batetara bueltatzeko lanak hasiko dira.



Kirol portutik herrira, eta herritik Santixora.

Udara honetan kirol portuak zerbitzu berri bat eskainiko du: kirol portua, herrira eta Santixoko hondartza lotutko dituen untzia. Argazkian ikusten duzuen untzia horrek 15-20 minutuero egingo du buelta osoa. Zerbitzu honek helburua kirol portua herrira hurbiltzea, eta, era berean, herritik Santixorako bidea modu erosoan egitea. Lehen Manterolak eskaintzen zuen zerbitzu hori, Abascaletik, baina badira urte mordo utzi zuela.



AXIER KIROLAK

Ortega y Gasset, 2
Tel: 943 86 22 06



**OSKARBI
KIROLAK**

Alai Auzategia, 14 behea
Tel: 943 14 31 12

Karmengo Ama, 14
E-20749 Arroa (Gipuzkoa)
Tel/Fax: +34 943 14 83 06
e-mail: bakun@euskalnet.net



Bakun
ITZULPEN ETA ARGITALPEN
ZERBITZUAK S.L

San Pankrazioak 2000

Aurreko urteetan baino jende gutxiago ibili da aurtengoan Estazio auzoko San Pankrazio jaietan. Hori bai, giro ona izan da nagusi festak iraun duen asteburuan. Ostiralean musika izan bazen ere, festei hasera larunbatean eman zitzaion ohiko txupinazoarekin. Lehen egun horretan umeak izan ziren protagonista. Scalextrica, jolasak, txokolatada, etab. Helduek ere izan zuten festa giroaz gozatzeko aukera, tortila txapelketa, sagardo dastaketak, eta nola ez, aurtengoan XI. edizioa betetzen zuen Mus Txapelketa. Igandean, diana eta mezaren ondoren hamaiketako izan zuten goiz jaiki zirenek. Eta gauzak nola diren, 12tan hasi behar zuen herri kiroletako desafioa, ordu bete atzeratu zen telebistan Beloki eta Eugiren arteko finala jolasten zelako. Eugik txapela buruan jarri ondoren, desafioari ekin zioten. Aurrez aurre, Juan Jose Aginagaldereen zaldia eta Balentin Eizagirreren astoa zeuden. Bakoitzak 650 kiloko harria eraman behar zuen tiraka 20 minututan. Irabazlea zaldia izan zen dezenteko aldearekin. Eta halaxe bukatu ziren aurtengo San Pankrazioak. Datorren urtean gehiago.



Nork ditu liburuak?

Zumaiako AEK euskaltegiara jende ugari etortzen da ea liburuak erakutsi edota uzteko eskatuz. Hauetako bati Hizkuntz Eskakizuneko bospasei liburu utzi genizkion, azterketa prestatu behar zuela eta, kopiak atera zitzaizkion. Berak esan zigunez kopiak atera bezain azkar itzuliko zizkigun liburuok, baina gaur arte zain egon gara. Horrela ba ikusita ikasturtea amaitzeaz dagoela eta oraindik ez dituela itzuli, ohar honen bidez itzul ditzan eskatu nahi diogu euskaltegian liburu horien beharra baitugu. Gure helbidera (Erribera 1 bis behea) edota gure bulegoan bertan utziz itzul diezazkiguke. **ZUMAIAKO AEK EUSKALTEGIA**

balezulo
importaturiko erroja eta artisautza

Basadi, 3

BASUSTA
ERRETEGIA

Pantxita Etxezarreta, 25 Tel. 862073


CORO
PRIETO
Estelicitista

Tel. 861322
Bonifazio Etxegarai plazatxoa z/g

Valentin Manterola:
**“Zumaia
energia
berezia duen
herria da”**

*Ordubete pasa dut Ismaelek
utzitako liburuetan Valentin
ezagutu nahian, zer galdetu,
nola galdetu jakin-minez.*

*Prestatutako galderen
zalantza buruan bueltaka
dudala joan naiz beregana.
Ez diot galderarik egin, baina
hemen duzue bere erantzuna.*



Beti sortzen dit zirrara berezia Mari kalean barrena joateak. Badu zerbait berezia. Bide zaharraren ondoan lerrokatzen diren etxeek elizaren horma ikusgarriaren babesa bilatzen duten kalestuan eguzki-izpiak izan ditut bidelagun Valentinen etxeko atariraino.

Duela 54 urte jaio zen etxe berean bizi da Valentin. Hitz egokia da hau, bertan egiten baitu bere bizitzaren oinarria, bertan marrazten du eta bertan du bere lanaren erakustokia, inguratzen den edonori atseginez erakusten dion lau pisuko etxe

ederrean. Igeltsero lanetan harrapatu dut, berak egin baititu etxearen berrikuntza-lanak, eta harrotasunez erakutsi dizkit jarri berri dituen argiak. Goitik behera erakutsi dit bere etxea, estudio gisa erabiltzen dituen lehen bi pisuak, bere bizitoki den hirugarren pisua eta, nola ez, bere lantokia den atiko argitsua. Urolaren azken urak Narrondorekin nola elkartzen diren ikus daiteke bertatik, Izarraitzen begiradapean beti ere. Bere lanak gogoratzen dizkit etxeak, argiz beteta eta itsaso eta mendiari begira. Zumaia baita bere lanaren oinarria.

"Zumaiarrak pribilegiatuak gara" esan dit bere gelako leihotik Orrua eta Santixo ikusgai ditugula, "artez jositako herri batean jaio gara: Beobide, Lacarra, Antxietaren erretaula, Egiguren, bertsolariak, arrauna, musika... Zarautz handiagoa da baina ez du horrelakorik!". Hau esaten ari da bere margo-lanak erakusten dizkidan bitartean: argi eta kolorez jositako koadroak dira, paisaiak eta bodegoiak nagusiki eta paisaietan itsasoa eta Zumaia. "Ez daukazu Parisen egon beharrik inpiratzeko. Ondo sentitzen zaren tokian egon behar duzu, eta ni hala nago. Zumaia zerbait berezia da, energia berezia duen herria".



Zumaiaz hitz egiten hasi eta Zumaiaren bizitza artistikora joan gara; Beobide eta Zuloaga ekarri ditu gogora, baina bereziki Beobide: "gogoan dut Beobide bere tailerlean lan egiten, bere azken urteak ziren. Lagun batekin joan nintzaion bisitan eta toki iluna iruditu zitzaidan, lurra egur-txirbidez josita, aldizkariak han eta hemen, eta bera han zegoen mailu eta zizelarekin egur batetik zerbait atera nahian. Nire lehen lanak ikusi zituenean animoak eman zizkidan. Gizon apala zen Beobide, kalean normal zebilena. Gaur berriz badirudi artistek beti izan behar dutela zerbait berezia, jende arruntari gustatzen

zaiona beraiei ez zaiela gustatu behar. Ni ez naiz horrelakoa, pertsona arrunta naiz".

Artistei buruzko aipamen horrek Zumaian dagoen indar artistikora eraman gaituzte: "jende irekia dago, eta gauza oso interesgarriak egiten ari den jende berria gainera. Ardantzako tailerra esaterako oso ekimen ausarta da". Bera hasi zen garaiaz hitz egiten dit, "Comandancia de Marina" delakoan lan egiten zuen garaia, eta eskatzen zizkieten margo-lanekin iritsi ezinean ibiltzen zen garaia. "Jauzi bat eman nuen, arriskatzea erabaki nuen eta margotzetik bizitzea, eta ondo atera zait. Nahi eta gustatzen zaidana egiten dut, baina horretarako lan asko egin behar da. Koadroak egin eta egin behar dira, ezin da erakusketa bat jarri hogeitaz koadroekin". Horrek nire bisitaren zergatia ekarri dit gogora: oraintxe amaitu da Madrilen Manterolaren azken erakusketa. Bi urtetik behin joaten omen da hara eta aurtengoa da joaten den bederatzi-garren aldia. Berrogei lan eraman ditu oraingoan, baina berrogei eramateko asko egin behar izan ditu. "Madrilen oso ondo hartzen naute, dagoeneko publiko jakina daukat eta oso gustukoa dute nire lana".

Zumaia eta Euskal Herritik kanpo oso ezaguna da Valentin, baina atzerrian erakustez ez du oraingoz pentsatu nahi: "ez dago presarik, eta gainera ez nau bereziki kezkatzen. Nire kezka nagusia koadro onak egitean datza. Orain gutxiago egiten ditut, nire buruari gehiago eskatzen diodalako. Niretzat koadro bat margotzea zazpi t'erdia karta-jokora jolastea bezala da, puntu zehatza lortu behar duzu, pasa egiten bazara edo iristen ez bazara galdu egin duzu".

Bere estiloa neofiguratiboa omen da, "bodegoiak eta paisaiak marrazten ditut bereziki, gizafaktorea ere sartzen saiatzen naiz, baina oso zailak dira gizairudiak". Gizafaktorearen aipamenean eurtan dauden pertsona-multzoz osatutako koadro batzuk erakutsi dizkit, ederrak benetan. Gaztetan egin nuen koadro bat

EGOKI



Erloju
eta bitxidenda

E. Gurrutxaga plazan

EGUZKI
PUB



Koktel bereziak

Basadi Auzategia, 9-A 2-B



Arantza Aramendi

EGUZKI
G. INMOBILIARIA

Harategi kalea, 25 behea
943 86 22 65 - 609 46 56 37

ENARA, S.L.
INPRIMATEGIA



Amaiako plaza, 15
Tel. 862458

expert



ELEKTROGAILUAK


MERTXE AIZPURUA

Etkezarreta, 6 Tel. 861078

Amertze

profesionalak gara
etor zaitez!

Erribera kalea, 6 Tel./Faxa: 943 861707



gogoratzen didate: hamar urte izango nituen eta Valentinen ikaslea nintzen, beste hainbat zumaiar bezala garai hartan Batzokian ematen zituen klaseetan, eta pertsona-talde bat marraztu nuen kale euritsu batean. Barre egiten du. "Zoragarria izan zen garai hura. Batzokiak izugarritzko apustua egin zuen eta haur ugari pasa ziren handik lau urtean. Azkenean haur gehiegi ziren eta ezin izan nuen jarraitu. Ondoren Forondan ere eman izan ditut ikastaroak. Nire helburua jendeak eskuak askatzen ikastea izan da beti, marrazkiak beldurrik gabe egitea". Nire irakasle ohiak ez zuen arrakasta handia izan nirekin, baina primerako beste ikasle bat izan zuen:

bere burua. "Ni autodidakta izan naiz beti. Gogoan dut haur bat nintzela nire traste guztiak hartu eta San Telmora marraztera joan nintzen lehen aldia. Itzurun eta itsasoa nituen aurrean baina bodegoi bat egin nuen. Marrazten dudanean ez dut inoiz eredu bat jarraitzen, apunteak hartzen ditut eta ondoren koadroa osatzen duten osagaiak erabiltzen ditut, ikusitakotik nik jaso dudana azaltzen dut nire margoan. Azkenean koadroa da balio duena".


Lehiaketa askotan parte hartu zuen garai batean eta asko eta asko irabazi gainera. "Gogoan dut margo-lehiaketa batetik nentorren batean, kopa bat

irabazi nuen eta Zumaiara iristean izugarritzko festa zegoen arraunlariak banderaren bat irabazi zutelako. Nire kopatxoa atera eta festa besteekin batera ospatu nuen, nik ere banuen eta zer ospatua".

Hitzez gure ingurua betetzen dugu, argiz husten doan ingurua. Valentinek eta bere estudio-etxeak hainbeste maite duten eguzki-izpiak ihes egiten hasi dira argazkiak ateratzen hasi garenerako. Hizketari ez diogu utzi eta beste lanartistikoetan izan dezakeen grinaz hasi gara. "Poesia dut maite, eta idatziak ditut ehunka olerki, beti margoa olerkian nahastuz. Oso maite dut Balendiñe Albizuk idatzi zidan olerki bat". Eskultura edo besteren bat probatzeak ez ote duen tentatzen galdetu diodanean, baietz erantzun dit irribarrez, "baina oraindik ez. Eskultura egiten badut zerbait desberdina egiteko izan behar du eta oraindik ez dut zer hori aurkitu".


Etxeko konponketak amaitzen dituenean itzuliko naizela agintzen nion bitartean elkar agurtu dugu, "etxea txukun dudanean erakutsiko dizut berriro". Eguzkiak alaitzen zuen atetik atera naiz, orain itzaletan, eta Mari kaleko plazatxotik jarraitu dut, Uda musikaleko kontzertuak egiten diren plazatxoa, "Vivaldi eta Mozart jotzen dute horrelako toki batean eta zoragarria da. Egun horretan inauguratzen dut beti udako erakusketa" esan dit Valentinek bost minutu lehenago, eta ideia horrekin joan naiz Erribera aldera eramango nauten eskaileren arrastoan.

◀ Josu Waliño





ekin
elektrizitatea, s.l.



instalazio elektrikoak
instalazio musikalak
antenak - parabolikoak
akumuladoreak
portero automatikoak
telefonía



Televés
Instalador
Oficial

Erribera, 18
20750 Zumaia (Gipuzkoa)
Tel./Faxa 943 - 143097
629 - 450777

Galdona



burdindegia

Mendaro marinela, 1
Juan Belmonte, 15

Tel. 861117 -143346
Faxa. 861330

Iragan industrialaren azken arrastoei agur

Badirudi Zumaiaren iragan industrialari agur egin beharrean gaudela. Urteak dira, moila berriko trenbideak eta grua horiak kendu eta haien ordeztan Gernikako parkea jarri zela. Orain hilabete eskas Arbustaingo gruak jauzi egin eta Urola ibaian murgildu zen (horretarako laguntza izan zuen ala ez beste auzi bat da). Hemendik gutxira, edo agian hau irakurtzen ari zaren momentuan, Balentziaganeko fabrika zaharra, "Viva España" izenez ezagutzen dena, bertan behera botako dute, eraikin horren ordeztan 75 etxebizitza berri eraikitzeko. Zumaia herri moderno eta turistiko bihurtzeko beste aurrerapauso bat.

Arbillaga zaku fabrika izandako eraikin honek badu bere historia. 1881. urtean pauleko bide zaharra egin zutenean badia zatiak lurrez bete zituzten eta estatuak Udalari eman zizkion txukuntzeko baldintzapean. Horien arteko handiena 5.967 metro koadroko Iturtxo-Ondartxo izeneko tokia zen. 1896. urtean estatuak Udalari baimena eman zion lur sail horiek saltzeko. Hurrengo urtean Jose Agustin Arbillaga medikuak erosi zituen eta 60 langileri lana emateko "yute" fabrika eraikitzeko saldu zizkion Zumaiako Udalak.

Jose Agustin Arbillaga 1849an jaio zen Zumaian eta 1919an hil zen. Izatez medikua bazen ere, enpresa gizon moduan ibili zen bizitza guztian. Zaku fabrika eraikitzeaz gain, herriko lehen fundizioa jarri zuen bertan eta argi indarra ekarri zuen Zumaiara, garai bateko Zelaiako argia. Horrek izugarriko eragina izan zuen hurrengo urteetako herriko industrializazioan.

Zakuak egiteko fabrika eraikitzea oso ideia ona izan zen kontuan izaten badugu itsasmerkataritzak zakuak behar zituela gaiak garraiatzeko eta Zumaia portu garrantzitsua bihurtu



ERTZ informatika



ORDENAGAILUAK
CD-ROM
INTERNET



Eusebio Gurrutxaga, 6

Tel. 943 14 33 95

GANBARA

Taberna

Juan Belmonte, 5 Tel. 943 86 10 57

zela garai hartan. Beraz, 1898. eta 1899. urteetan fabrika eraiki zuten eta 1921 arte jarraitu zuen lanean. Mutrikura eraman ondoren eraikina Balentziaga astilleroei alokatu zioten Arbillagaren ondorengoek, azken enpresa horren akziodun nagusiak baitziren.

Eraikinaren balioari dagokionez, oso bereziak dira aurrealdean dituen pabilioiak eta etxebizitza eta ofizinetarako erabilitako erdiko zatia. Material industrialez eraikita dago, adreilua eta zementua, harria eta egurrez gain. Dekorazioa harri borobilez egindako leiho gaineko frisora mugatzen da. Erdiko zatia berriz, fundizioko bi koloma gainean dago eta miradore antzera kanpora egiten du. Egurrezko estruktura ahula da eta lehendabiziko solairuak arabiar arkuak imitatuz egina, Kordobako meskitako arkuen bi koloretako zatiak imitatzen ditu. Bigarren solairua geroago eraiki zuten, argazki zahar batean ikusten baita hasieran balkoia zegoela eta ez gaur egun dauden leihoak eta kristalera teilatu azpian.

Bi solairuak bereizten zituen "Viva España" kartela gogoratzen dute batzuek eta modu horretara ezagutzen zen eraikin hau, "Viva Españako etxea". Gerra Zibilean Francok eraikina bahitu zuen Zelaia familiaren beste ondasunak bezala nazionalistak izateagatik, horregatik jarriko zioten garaipenaren hitzak garaituaren etxean, gehiago umilatzeko edo.

Barruko gauzarik interesgarriena fundizio zaharra eta harrizko arku handiak dira. Zerbait gordetzekotan agian elementu horiek gordetzeko aukera aztertu beharko litzateke. Hiru



adituk egin zuten txostenaren arabera, Gipuzkoan dagoen arkitektura industrial bitxieta dela esan daiteke.

Balio urbanistikoa ere aipatu behar da, ez baita askotan kontuan hartu. Eraikinak Amaia plazako alde bat ixten du, muga moduan ikus daiteke eta erreferentzia moduan hartu, eta espazio publikoek behar duten elementu monumental moduan funtzionatzen du.

Egoera tamalgarría

Zumaiar askok ikusi izan dugu fabrika zaharretik itsasontzien zatiak Santixora eramaten, baina Balentziagak bere produkzio guztia Santixo auzoko pabilioietara eraman zuenetik, Arbillaganeko eraikin zaharra guztiz abandonatuta geratu zen. Garbi dago azken urteetan eraikina erortzen utzi dutela. Espekulazio handia dago terrenoen gainean eta jabegoa ere zalantzan ibili da epaiketetan. Denbo-

raren poderioz, eta etxea zaintzeko inongo lanik egin ez denez, Amaia plazako fabrika zaharra egoera tamalgarrían dago, bere kasa erortzeko arrisku handiz. Norbaitek min hartzeko arrisku hori da Zumaiako Udalak eraikuntza bertan behera botatzeko jartzen duen arrazoietakoa bat. Rikardo Peña alkatearen ustez, "Viva Españako etxeak" ez luke urte amaierako bezalako beste denborale bat jasango eta komenigarria izango litzateke eraikin arriskutsu hori hortik kentzea. Iritzi bera dute Udaleko beste zinegotzi batzuek ere.

Aspaldikoa da berritzeko eta beste erabilpenak emateko gomendioa aipatzen zuen txostena. Azken urteotan Arte Taldeak Eusko Jaurlaritzari eskatu zion azter zezan fabrika zahararen balio artistikoa. Eskaera horrek ez zuen erantzunik izan. Industria ondarearen zerrendan sartzeko ere geratu zen, baina azkenean ez zen sartu eta legearen



Auto-konponketak

ELKAR

Estazioko kalea Tel. 943 86 02 01



PEUGEOT



KAFETEGIA
GARROA
JATETXEA

TXOMIN AGIRRE KAIA
TEL. 943 86 21 81



aurrean oso ezberdina da "inventariable" eta "inventariado" hitzen arteko aldea. Aditu batzuen ustez interes bereziko eraikina da hau, baina kontserbazioa garestiegia zela eta beti atzera egin da.

Herriko ermita, parrokia edo Santiago bidea ez bezala, fabrika zahar hau ez da agertzen Zumaiako Udalak edo Eusko Jaurlaritzak arkitektura edo arte arrazoiengatik gorde behar dituen eraikinen artean. Luciano Paguegi udal arkitektoaren ustez, gainera, eraikin honek ez du interes arkitektoniko handirik. Bere esanetan, jendearengan harridura sortzen duen arabiar estiloko kanpoalde hori pastitxe hutsa da. Hori bai, barrualdeak badu interes handia. Bere ustez, interes arkitektonikoa baino interes historikoa dauka Ondartxoko fabrikak.

Eraisketa hau aurrera eramateko ez Udalak eta ez eraikinaren jabeek ez dute traba handirik izango. Legedi

aldetik begiratuta, Arbillaganeko zaku fabrika udal arauetako ordenaziotik kanpo dago 90eko hamarkada hasieratik. Ondorioz bertan behera bota beharra dago, bere ordeztu etxebizitza berriak eraikitzeko.

Hirigintza sailaren ustez, alkatea buru dela, Amaiaiko plazako fabrika zaharra guztiz arriskutsua da herritarrentzat eta hauen ondareentzat. Aitortu digutenez, eraikin hau "hondamen tekniko" deklaratzetik pauso batera dago, eta ziur aski "hondamen ekonomiko" bezala arazorik gabe deklaratu litzateke. Hondamen ekonomiko bezala hartzen da eraikina berritzeko lanek honen balioaren %50 gainditzen dutenean. Hondamen teknikoa, aldiz, eraikin horren egoera bizilagunentzat arriskutsua denean deklaritzen da. Orduan berehala bizilagunak desalojatu eta eraikina bertan behera bota behar da. Egoera horretan zegoen Patxanganeko etxea orain urte batzuk bota zutenean. Alkatearen esanetan, eraikin hori

bertan behera botatzea komeni da biztanleentzat duen arriskuagatik. Gainera, horrela, lur sail horretan udarako aparkalekuak egitea posible izango litzateke.

Hala ere, lur sailaren jabeak aurreratu egin dira, eta Udaleko hirigintza sailean eraikin hau botatzeko eskaera luzatu zuten. Lur sail horretan 75 etxebizitza eraikiko dira, horietatik 15 babes ofizialekoak. Zumaiako arauak diotenez, eraisketaren baimena emateko aurretik eraikinaren planoak aurkeztu behar dituzte jabeek. Udal arkitektoarekin hitz egin genuenean, bi plano besterik ez ziren falta eraisketa baimena emateko. Bi plano besterik ez mende oso bateko historiari agur egiteko.

Arbillaganeko zaku fabrika botatzearekin gure historiaren beste zati bat gabe geratuko gara. XX. mendearen bigarren erdialdeak izugarritzko lana egin du ondare historikoa gordetzeko eta ezagutarazteko, baina ez dio behin ere garrantzi handirik eman aurreko belaunaldi hurbilenek egin zuten lanari. Hemendik urte batzuetara zaila izango da 1800 eta 1950 bitartean eraiki zena ikustea Zumaiari. Badirudi 150 urte horietan zumaiarrek ez zutela gordetzeko moduko ezer egin. Industrializazioaren hasierak, ontziolak, ontziak, udako etxeak, azpiegiturak eta abar mendearen bigarren erdialdeko modernitateak eraman ditu. Gauzak horrela, geratuko al zaigu XIX eta XX. mende hasierako aztarnarik?

◀ ISMAEL MANTEROLA ISPIZUA / JUAN LUIS ROMATET

GAZTE, S.L.
ELEKTRIZITATEA
ARGIDENDA

Era guztietako instalazioak etxebizitza, pabilioi eta herriko argietan

Izaga, 1 behea Tel./Faxa: 143402

TAILERRA: Estazioko kalea, 24
Tel. mugikorra: 908 -143409

BALEIKE

2000ko ekaina. 69. zenb.

gofi
haur jantziak

Amaiaiko plaza z/g

Tel. 860959

egitaraua



EKAINAK 28, ASTEAZKENA

Eguerdian Udaletxe aurretik jaien hasiera, Txupinazoa. Ondoren, kalejira Tolosako Dultzaineroek alaituta.

Egun guztian zehar, goizeko **11**etan hasita, Txu Txu tren.

17.00etan, Buruhaundi eta Erraldoien kalejira Dultzaineroen laguntzaz.

18.00etan, Beheko Plazan, Herri Kiroiak.

19.00etan, Udal Musika Bandaren kalejira.

23.00etan, San Pedrotako Tanborrada berezia.

24.00etan, Udaletxean, banderaren igoera.

01.00etatik aurrera, Izotz taldearekin dantzaldia, Eusebio Gurrutxaga plazan.

EKAINAK 29, OSTEGUNA

08.00etan, Goiz Soinua Tolosako Dultzaineroekin.

10.15etan, Alkate Soinua Udal Musika Bandarekin, eta Udalbatza eta herri-tarrak prozesioan Parrokiara joango dira.

10.30etan, Parrokian, Meza Nagusia Parrokiko San Pedro Abesbatzak abestua.

12.30etan, Udal Musika Bandaren kontzertua. Jarraian Tolosako Dultzaineroen kalejira.

17.00etan, Odieta Pilotalekuan, eskuzko pilota partidu profesionala: Berasaluze VII-Milikua/Del Rey-Almandoz eta Goñi II-Otxandorena/Olaizola I-Goñi III.

19.00etan Incansables txarangaren kalejira.

23.00etan, Pirotecnia Zaragozanak eskainita Su Artifizialak.

Jarraian Kalejira Tolosako Dultzaineroekin Eusebio Gurrutxaga plazarantz. Bertan Zumaiaiko Udal Musika Bandak San Pedrotako dantzaldia eskainiko du.

EKAINAK 30, OSTIRALA

09.00etan, Dultzaineroen kalejira.

Eguerdian, Beheko Plazan, Gorriti eta bere animaliak eta Laja eta Landakandaren saioa.

18.00etan, Kukubiltxoren saioa: Txirrikiz.

UZTAILAK 1, LARUNBATA

Egun osoan zehar Eusebio Gurrutxaga plazan eta pelotalekuan Haur Parke Erraldoia.



GIZARTEKINTZA zentru soziala

KAFETEGIA - JATETXEA

- Eguneko menua
- Plater Konbinatuak
- Kaxuelitak
- Kuadrillentzako afariak

Eusebio Gurrutxaga plaza, z/g Tel. 943 86 17 00

• denontzat irekia



Gipuzkoako Foru Aldundia
Gizarte Zerbitzuetarako departamentua

Gure Txokoa

• taberna •

kaxuelita eta pintxo ezberdinak

San Pedro kalea

Sanpedroak



10etatik **14**etara, futbol zelaiaren anexoan, Aeromodelismo eta Radio-kontrol erakusketa.

14.00etan, Bazkari Herrikoa. Jarraina jokoak eta Gazte Batzordearen txarangaren ekitaldia.

16.00etan, Urola ibaiaren itsasoratzean, Urolako XXIV. Igoera eta Jeitsiera, Euskadiko II. Kopa-2000.

18.00etan, Tolosako Biribilketa konpartsaren kalejira: erraldoiak, kiliki eta zaldikoak eta Dultzaineroak.

22.00etan, Odieta pilotalekuan zesta partiduak, XII. San Pedro Txapelketaren azken partiduak.

23.00etan, Eusebio Gurrutxaga plazan, Beti Alai taldearekin berbena.

UZTAILAK 2, IGANDEA

11.30etan, Txikiardi auzoan, Narrondoko Jai Batzordearen antolaketaz, IV. Ardi Txakur Txapelketa.

12.30etan, Kofraian, Musika Eskolako Haur Bandaren kontzertua.

18.30etan, Urola ibaian, Aulki Mugikorreko erakusketa.

19.00etan, Beheko Plazan, Xirimiri taldearekin dantzaldia.

22.30etan, Beheko Plazan, Euskal Dantza Ikuskizuna Donostiako Koruko amabirjinaren eskola taldearen eskutik.



English School
Harvest

Ingeleseko klaseak adin guztietan
San Jose, 11 bis Tel. 943 143334



BALEIKE

2000ko ekaina. 69. zenb.



Alai auzategia, 2

Tel. 943 14 33 24



Hondakinen arazoari aurre egiteko politikak

“Hondakin kutsatzailak sorreran ezabatu beharko lirateke. Behin sortuz gero, beranduegi da”.

Barry Commoner, Making peace with the planet (1990)

Azkeneko hiru hamarkadetan, inoiz ez bezala, zientzia ezaguerak aurrerapen handia izan du. Baita gizarteak ingurugiroarekiko duen kontzientziak ere. Teknologia berrietan eta iritzi publikoan gertatu diren aldaketa horiek hondakinak kudeatzeko oinarri politikoak aldatu dituzte herrialde garatuenetan. Baina politika horiek galdera okerrari emandako erantzunak izan dira beti: zer egin sortzen ditugun hondakinekin?

Hasieran, nahikoa zen hondakinak leku konkretu batzuetan pilatzea,

naturak horiek hartzeko ahalmen mugagabea zuelakoan. Baina zabor-tegiak betetzen joan dira, eta hondakin kutsatzaile asko oso iraunkorrak eta toxikoak direla agerian gelditu da. Orduan agintariak onartu egin behar izan dute substantzia horiek kontrolatzeko teknologia aurreratuak ezinbestekoak direla (tratu-mendu fisiko zein kimikoak, errauskailuak, etab.).

Joera horrek handakinak kudeatzeko programen ezarpena ekarri du. Ingurumenak substantzia kutsatzaile kopuru jakin bat onar dezakeela ontzat ematen da. Arazoa da kopuru jakin hori zenbatekoa den erabakitzea. Ezaguera zientifikoak ezin badu zehaztu, beti substantzia kutsatzaileari ematen zaio lehentasuna, eta eragin ditzakeen kalteak benetan neurtu gabe isurtzen da.

Gestioaren akatsak

Gai kutsatzaileak kudeatzeko programa garestiak ezarri diren arren, azken urteotan ingurumenak suntsipen harrigarria jasan du. Izan ere, politika horiek ez baitituzte kontuan hartu funtsezko zenbait arazo:

1.-Sarritan, hondakinak tratatzerakoan, prozesuak berak hainbat kalte sortzen ditu. Adibidez, hondarrak sortzen dira, eta hauek gaixotasunak eragiten dituzte langileengan.

2.-Ez dira hondakin mota guztiak kontuan hartu, kutsatzaile gehienak ezezagunak baitira. Baita ingurumenean sor ditzaketen kalteak. Naturan hondakin ezberdinen artean gerta daitezkeen nahasketak oso arriskutsuak izan daitezke.

3.-Hondakinak eta arriskua lekuz aldatzeko besterik ez dute balio. Hori

dela eta, lehenago edo geroago, substantzia kutsatzaileak inguruan azalduko dira. Are gehiago, hondakinak tratatzeko erabili izan diren sistema batzuek, errauskailuak barne, substantzia kutsatzaile berriak sortzen dituzte, kasu askotan ezabatu nahi diren substantziak baino material toxikoagoak libre utziz.

Hondakinen inguruan nagusitu den jarrera merkantilistak ere kezka sortu du. Gizarte honetan dena salgai dago, eta jakina da hondakinen kudeaketa, nahiz eta toxikoak izan, negozio bihurtu direla. Hau da, diru kopuru baten truke, hondakinak begi bistatik kentzen dizkigun kamioia daukagu, baina enpresek eta partikularrek hondakinekiko izan beharko luketen ardura desagertu egin da.

Hondakinak ezabatzeko politika horiek hankamotz gelditu dira, ez baitira arazoari benetako irtenbidea emateko gauza izan. Horren adierazgarri da zenbait herrialde garatuk hartutako bidea. Alemania buruan, euren hondakin arriskutsuenak kanpora bidaltzea erabaki dute, bertan indarrean dauden ingurugiro legeek hondakinak kudeatzeko prozedura asko debekatu dituztelako. Hondakin arriskutsu horiek hirugarren munduko herrialdeetara bidaltzen dituzte, han ez baitago aurkako legedirik.

Ba al dago irtenbiderik?

Arazoari aurrea hartzea da lainopeko labirinto honetatik ateratzeko ate bakarra, hondakinen produkzioa ezinbestekoa dela babesten duten jarrera neoliberalak behingoz bidean utzita. Hasieran botatako galdera aldatzeko garaia iritsi da, eta honako honi erantzuten saiatu: hondakinik ez sortzeko, zer egin daiteke?

◀ GONTXALO TORRE



Erribera kalea Tel. 861523

ILEAPAINDEGIA
FRUITZ



San Telmo, 12
Tel. 860760

ITSASKI
SUPERMERKATUA

Urumea kalea z/g
Tel. 143058

ITSY-BITSY
SCHOOL OF ENGLISH

Ingeleseko klaseak maila guztietan
Cambridgerako azterketak

Basadi, 2 Tel. 862373

Itzurun
ATEAK



Itzurun zuhaitzbidea, 2
Tel. 861565 - 143446

ITZURUN
KIROLAK



Amaiako plaza, 13 Tel. 860758

ileapaindegia

I Z E T A



Urumea, 6 Tel. 862083

Larrañaga
Juanjo

HARATEGIA URDAITEGIA

Basadi auzategia, 4-A Tel. 862081

- Arrainak eta haragiak aukeran
- Eguneko menua
- Jangela klimatizatua

Juaristi
JATETXEA

Basadi auzategia, 10 Tel. 861853

taberna
JUSTA
eguneroko bazkariak



Erribera kalea, 20

KABI
TABERNA - ZUMAILA



Tel. 143379

Joxe Antonio Alberdi. Zumaiako Futbol Taldeko lehendakari ohia

“Taldea mailaz igo arte lehendakari mantenduko nintzela hitz eman nuen eta hitza bete dut”

Joxe Antonio Alberdi getariarra, azken bederatzi urte hauetan Zumaiako Futbol Taldeko lehendakaria izan da. Momentu onak eta txarrak pasa ditu herriko futbol taldearen lehendakari postuan. Lehen taldeak igoera lortu duen urte berean utzi dio Joxe Antoniok lehendakari izateari eta Joseba Esnali eman txanda. Aldizkari hau kalera ateratzeko unean, gainera, bere zilarrezko ezteiak beteko ditu. 25 urte Zumaian, 25 urte ezkontuta eta 9 futbol taldearen zuzendaritzan. Ez da gutxi!

❑ Noiz hartu zenuen Zumaiakoren lehendakaritza?

Ni orain dela bederatzi urte sartu nintzen. Aurreko zuzendaritzak utzi nahi zuen eta talde batek hartu genuen zuzendaritza hau. Taldea Xabier Irureta, Javier del Pilar, Segundo Manterola eta beste askok



osetzen genuen. Aurreko zuzendaritzak deitutako azken asanbladara joan ginen. Bileran horren ondoren inork taldea hartzen ez bazuen, Zumaiako desagertzeko arrisku handia zegoen. Haren ondoren nik lehendakari postua hartu nuen, Xabier Irureta lehendakari orde, Segundo Manterola tesorero, Javier del Pilar idazkari eta Luis Larios tabernaren arduradun. Denbora pasatzen joan ahala, taldeko kideek beren postuak utzi zituzten.

❑ Lehen urteetan arazoak ere izan ziren.

Hasi eta urte pare batera eduki nuen urte hauetako momentu txarrena. Taldea Preferentean zegoen. Santelmoak heldu ziren eta partidua genuen. Nahiko momentu larrian geundela eta, entrenatzaileak, Juan Ramon Llavorik, ultimatum bat eman zuen: edo parrandak utzi edo berak alde egingo zuen. Guk entrenatzailearekin bat egin genuen eta baita jokalariekin hitz egin ere. Horien esanetan

Santelmoetan ezin zioten parrandak egiteari utzi. Ondorioz, taldetik sei jokalaririk bota ziren, esandako orduan heldu ez zirelako. Taldeko jokalaririk onentsuenak ziren gainera. Jokalari horiek egunkarietara jo zuten beren kexa azalduz. Urte horretan taldeak maila galdu zuen. Bederatzi urte hauetako momenturik txar bakarra izan zen hori. Taldeak maila galdu zuenean nik lagun talde bati esan nion, taldea maiatz igo arte ni lehendakari izango nintzela. Jaitsi zenean ni lehendakari nintzenez, igo arte bertan izango nintzela hitz eman nuen. Emandako hitza konplitu egin dut.

❑ Nola joan dira urte hauek guztiak?

Oso ondo joan dira. Aipatutako momentu txar hori kenduta, oso giro ona izan dugu taldean, bai jokalariekin eta bai zuzendaritzako kideekin. Nik postu hau hartu nuenean, ez nuen esperientziarik. Txepetxa elkartearen zuzendari egon nintzen bi urtez eta beste bi zuzendariorde, baina horrek

KALARI

J
A
T
E
T
X
E
A

- * Eguneroko bazkaria
- * Pintxo eta bokatak
- * Koadrilentzako menu bereziak
- * Kazuelitik eta plater konbinatuak

Erriberka kalea, 16
Tel. 862517

Kresala
— edergintza —

Baltasar Etxabe, 5
Tel. 943 14 31 35

- * Depilaketa (beroa, epela)
- * Minik egiten ez duen depilaketa elektrikoa
- * Aurpegia edertzeko sendabideak
- * Gorputza edertzeko sendabideak
- * Lurrindegia
- * Solarium-a

KUKUTZ
serigrafia

- *kamisetak
- *txiskeroak
- *paperezko poltsak, e.a.

baltasar etxabe 7 tel: 86 05 69



ez zuen zerikusirik kirol talde batekin. Niri beti gustatu izan zait kirola. Urte askoan kirolaria izan naiz. Pelotari federatua izan naiz eta baita Zarauzko futbol jokalaria ere. Kirolaren zaletasun horrek asko lagundu dit bederatzi urte hauetan postuan jarraitzeko. Beste puntu bat familian aurki daiteke. Nire semea ere futbolaria da eta horrek bultzada bat ematen zuen. Urte hauetan guztietan futbolari koadrila oso ona izan dugu, inongo arazorik jarri ez duena. Entrenatzaileekin ere ez dut arazorik izan. Inguruko taldeekin ere oso giro ona dugu. Bai Zarautz, Zestoa eta abarrekin. Noski, pikeak ditugu joko aldetik baina zuzendaritza aldetik, ez dugu inongo arazorik izan.

B **Azken urte hauetan Lehen Erregionalean egon da Zumaiako. Nola joan dira urte hauek?**

Mailaz jaitsi eta lehen urteetan mantentzen saiatu ginen. Azken hiruzpalau urteetan aldiz goian aritu gara, igoera lortzeko aukera handiekin. Aurreko urtean ere izan genuen Preferentera igotzeko aukera, baina zarautzarrekin jokaturako azken partiduan gure aukera ia denak galdu genituen.

Igoera lortzeko kanporaketan Hernaniren aurka jokatu behar izan genuen. Nik ez nuen itxaropen handirik izan, jakina baita goiko mailetan taldeak dituzten klubek, Hernanik bezala, goiko taldeko laupabost jokalaria uztea posible dutela besteari aukera bat bera gabe utziz.

B **Denboraldi honetan taldeak igoera lortu du. Egin ezazu balantze bat.**

Lehen taldearena izugarria izan da. Oso denboraldi ona bete dute eta igoera lortu dugu. Guztira 73 puntu lortu dituzte, bi partidu besterik ez dituzte galdu, bat Zarautzekin, oso partidu arraroan, eta bestea Elgoibarrekin. Gainera 15 gol besterik ez dizkiote sartu, hau maila guztietako baxuena da. Zumaiakoren taldea 18 jokalarik soilik osatu du denboraldian, eta horien lana izugarria izan da, txalotu egin behar da. Jubenilek ere denboraldi ederra bete dute, mailako zortzigarrenak izan dira. Kadeteek ere denboraldi polita egin dute. Neskek ere urte ederra bete dute, eta igotzeko aukerak ere izan dituzte.

B **Orain Preferentean. Maila horretan jarraitzea izango da helburua, ezta?**

Bai, igo berriak garela eta, hasiera batean maila mantentzea da Zumaiakoren helburua. Gero, gauzak nola doazen ikusita beharbada aldaketa batzuk egingo dira. Denboraldi oso gogorra izango da datorren urtekoa. Bertan izango dira Hondarribia, Tolosa, Zarautz, Zestoa, etab. Beti ere partidu politikak izango dira, pike handikoak. Zumaiakoren jokalaria ia denek jarraituko dute. Oraingoz pare batek bakarrik esan dute ez dutela jarraituko. Geratzen direnei jubeniletako bost bat jokalaria batuko zaie, oso talde gaztea osatuz. Taldeko beteranoenak 26 urte besterik ez ditu. Talde gaztea da baina esperientzia handikoa.

B **Bederatzi urte ondoren lehendakaritza uzten duzu. Zergatik?**

Girona ingurura joan behar dugu bizitzera. Hala ere, aurretik pentsatua nuen lehendakari postua uztea. Gainera goian uzten dut taldea. Joan bitartean hemen jardungo dut zuzendaritza berriari laguntzen, baina inongo erresposabilitaterik gabe. Edozein gauzatarako behar nautenean hemen aurkituko naute. Nik eskerrak eman nahi nizkieke urte guzti hauetan lagundu digutenei. Bai bazkideei, momentu on eta txarretan gurekin egon direnei, taberna, denda eta enpresa txikiei, eta bereziki azken urte hauetan taldearen babesle den Muebles Endañetari. Nik taldea zuzendu dudana urte guztietan izan dugu babesle bezala, eta oso babesle ona izan da. Nik hau eskertu nahiko nuke eta ondoren datozenei laguntzea eskatzen diot.

◀ **JUAN LUIS ROMATET**


AIZPURUA
LIBRUDEN
A

Aita-Mari auzategia, 17
Tel. 943 861569


LEIZE
taberna

Juan Belmonte, 6 Tel. 860415


Loitz

- * Eskola eta bulegorako materiala
- * Enkoadernazioak
- * Fax publikoa
- * Aldizkari eta opariak

Erribera, 4 Tel./Faxa: 143422

Laburrak

Sydney urrunago dago Oierrentzat

Oier Aizpurua piraguista Sydneyko Joko Olinpi-koetan parte hartzeko lanean ari da azken hiru urteotan, Galizian kontzentratuta. Espainiako selekzioko lauko ontzian izateko aukera du Oierrek, baina nahikoa zaila jarri zaio, azken proban pattal samar ibili baitzen. Izan ere, Espainiako selekzioak lauko bi ontzi ditu, eta ekainaren 4an entrenatzaileak proba bat egin zien, bietatik onena zein zen jakiteko. Eta tamalez, Oierren ontzia bigarren izan zen. Hala ere, entrenatzaileak ez du azken erabakia hartu, ontzi galtzaileko kideak –Oier barne– sasoiz kanpo daudela konturatu baita. Oierrek azaldu digunez, duela hilabete beraien topera zeuden, beste ontzia baino askoz hobeto. "Duela hilabete bederatzi segundo azkarrago nenbilen, eta igandeko proban ontzi erdia baino ez ziguten atera, gu gaizki aritu arren". Espainiako entrenatzaileak zenbait proba egin nahi ditu lauko irabazlea eta galtzaileko bi piraguis-tekin, tartean Oier. Datorren astean Europako Txapelketa jokatu da, eta Oier bertan izango da. Bere azken aukera izan daiteke.

Zumaia txapeldun zestako herriartekoan

Zestako pilotari bikainak eman ditu Zumaiak azken urteotan, eta badirudi etorkizunean ere hala izango dela, Zumaiako puntistek irabazi baitute Herriarteko Txapelketa. Finala Tolosaren aurka jokatu zuten, ekainaren 3an, eta azken emaitza 2-1ekoa izan zen. Zumaiarrek kadete eta jubeniletan irabazi zuten (30-13 eta 35-13), eta tolosarrek senior mailan (35-18).



Zumaia Gipuzkoako txapeldun trainerilletan

Laugarren izan dira Euskadiko Txapelketan, eta seigarren Espainiakoan

Zumaiako Arraun Elkartek emaitza bikainak lortu ditu aurten traineril-letako txapelketetan. Joan den maiatzaren 21ean Gipuzkoako txapela erdietsi zuen Getarian, Donosti-Arraun eta Trintxerperen aurretik. Zumaiarrek bi egunetan erakutsi zuten indar-tsuenak zirela. Igandeko estropada erabakigarrian, Arraun aurreratu zen lehen luzean, baina bigarrenean zumaiarrek parean ziren, eta hirugarrenean zazpi segundoko errenta lortzeko gauza izan ziren Xabier Eizagirrek zuzendutako mutilak. Helmugako denborak honako hauek izan ziren: 1. Zumaia-Paternina 14:10:61; 2. Donostia-Arraun 14:20:79; 3. Trintxerpe 14:30:09. Zumaiako trainerilla honako hauek osatu zuten: Xabier Bereziartua, Xabier Zulaika, Iñaki Unanue, Jose Inaxio Zulaika, Iurgi Lafuente, Jokin Urkidi eta Xabier Eizagirre patroil lanetan.

Astebete geroago, Euskadiko Txapelketa zuten helburu zumaiarrek, leku berean, Getarian. Orduan, ordea, ez ziren aurkariak mendean hartzeko gauza izan. Lehen egunean, larunbatean, ohorezko txanda jokatzeko txartela lortu zuten, baina igandean ezin izan zuten aurreko astekoa errepikatu, eta laugarren amaitu zuten. Sailkapena: 1. Urdaibai 14:08:09; 2. Arraun 14:15:34; 3. Orío 14:18:74; 4. Zumaia 14:23:03.

Eta trainerilen txapelketekin amaitzeko, Espainiako falta zen. Donostia-Arraunek uko egin zion parte hartzeari, eta horrek Zumaiari eman zion aukera. Santanderren jokatu zen, eta etxeok izan ziren irabazle. Ohorezko txandan ez zen euskal ordezkari izan, eta bigarrenean Zumaia izan zen onena, Urdaibairen aurretik.


◀ GORKA ZABALETA



Ertzak

Borobila da mundua; ez dauka ertzik. Borobila da eguzki sistema ere, han dago erdi-erdian eta gu inguruan bueltaka. Borobila da gure bizitza ere, ez dauka ertzik, ni nago zentroan, kotxea garajejan daukat eta Gran Hermano 10etan hasten da. Baina aspaldiko aurpegi hura bat-batean gogoratzen duzunean edo zure diapositiba kaxa guztiak begiratu eta guztietan haurren argazkiak bakarrik daudela konturatzen zarenean hor azaltzen dira ertzak. Eta ez duzu bila joan beharrik, bakarrik azalduko dira. Desplegatuko dira eta gero plegatuko dira berriro.

Aspaldiko gizonak abiatzen ziren munduaren ertza bilatu nahian (mundua laua zenean gertatzen den), ez dakigu ezer aurkituko zuten han urrutian, itsasoa urjauzi bihurtzen den



Heldu da azkenean! Aten ostean, beste proiektu batean sartu ziren, eta dut soilik entzuteko gogo handiekin geuden. Lehen diskotik atera aldaketa handia dago eta orain beste jauzi bat egin dute Hondarbitarrek. Jauzia bai, baina berriro disko biribila atera dute.

lekuan, inor ez baitzen itzultzen. Gu ere, ausardia handiz abiatu ginen duela 800 urte beste haiek egin zuten bezala, eta bat-batean, autopistako bigarren peajea pasata, han egin genuen topo ertzarekin. Kieto. Beran hain zuzen (beste aldean Bera de Bidasoa esaten omen diote). Han ostatukoak esan zigun: hori da sarrera literarioa egin duzuen musika jaialdi baten komentarioa egiteko.

Eta guk: Bai, hala da, monseñor. Gu lasai geratu ginen nahiz eta jakin bera ez zela monseñor.

Hortaz, ekainaren hamarra zen: Alejandra & Underwood, Zulo Beltza, Amy Denio eta Francisco Lopez han ibili ziren zaratak ateratzen eta bere arrastoa uzten, makinekin, instrumentuekin, bliszz eta krak. Jakina da hala ere soinuaren izatea nahiko efimeroa dela (normalean soinu bat, adibidez txanpon batek lurraren kontra jotzean sortzen duena, ez da izaten segundo erdi bat baino luzeagoa asko jota),

hori izan daiteke arrazoia gu Berara iritsi ginenerako Alejandra & Underwood eta abarren arrastorik ez aurkitzea, ez zen ezertxo ere entzuten. Kontuan hartuta 24 ordu beranduago heldu ginela, ba normala iritzi genion, oso bibrazio sendoa behar baitu soinu batek 24 orduren ostean gizakiaren belarri arruntak entzun ahal izateko.

Hori zela eta momentu hartan jotzen ari zirenak ikustera joan ginen, eta han zeuden, Evol (elektronika), Voodoo Muzak (zuzeneko drum&bass edo), ...dans l'herb (elektronika) eta Eardrum (afrikar perkusioa, jazz, elektronika), bakoitza bere eran musikaren ertzak arakutzen. Horrela ibili ziren goizaldeko hirurak arte. Gu, hau dena jakinik eta zeharo ahiturik, orain itzulerako bidean goaz; ea itzultzea lortzen dugun: gero ea norbaitek sinesten dizkigun periplo miresgarri honen pormenoreak.

◀ JON MANTZISIDOR

dut: askatu korapiloa

Askatu korapiloan bi zati daudela esan dutenekin ados nago. Lehen zatian daude erritmo berri hipnotiko horiek, ahots distorsionatuak sartu dituzte eta bigarren diskoan baino melodikoagoak dira. Bigarrenean denbora mantso baina tensoak daude aten ildotik gertuago.

Harritu egin naiz orain arteko komentarioetan Akauzazteren influentzia aipatze ezak. Influentzi hori oso ongi hartu dugu hemengo beste talde

onenetarikoa dela pentsatzen dugunok. A zer nolako hiru lan dituzten kaleratuta.

Kontzertu bikaina eskeini ziguten maiatzaren 5ean Zumaian, Azken Taupada eta Nidelekin batera. Ahotsak ez zituzten Oartzungoan bezain fin baina, penagarriena lehen diskotik ezer ez jotzea iruditu zitzaigun. Musikazale naizen aldetik, eskerrak eman beharra daukat.

◀ UHIN LOIOLA

MILA ILE APAINDEGIA



Ile - kosmetikan diplomatua

Foruen Enparantza, 13 - 1 Tfnoa: 861160
ZUMAIA

"Muagi"

- ERREHABILITAZIOA
- KIROL MEDIKUNTZA
- FISIOTERAPIA

Aita Mari 3.blokea
Tel. 943 86 16 91

RPS: 034/97

BALEIKE

2000ko ekaina. 69. zenb.

ILE APAINDEGIA

herea
Uranga

Etxezarreta, 19 Tel. 862342

Hilaren 27an aurkeztuko dira Zumaian berreskuratutako bi film zaharrak

Zaragozako Filmategian agertu eta hainbat berriztapen lan jasan ondoren, hil honen 27an aurkeztuko dira Aita Mari zineman orain denbora gutxi Euskadiko Filmategiak berreskuratutuen bi pelikula zaharrak: 1930eko "Arritokietako Andra Mari Amabirjinaren Koroazioa" eta 1924ko "Ongintzako Txekorketa Zumaian".

Lehen pelikulan, Arritokietako Andra Mari Amabirjinaren koroazio ekitaldiak ikusten dira. Bigarrenean, aldiz, ospitale-babesetze baten alde dirua biltzeko ongintzako txekorketa baten berri ematen da. Bi pelikula horien zuzendaria Jose Maria Martiarena izan zen. Martiarena 1897an jaio zen Zumaian eta 1930ean hil zen Donostian. Nolabaiteko xelebre famako gizona zen, zinema eta argazkirako zuen interesa haririk gabeko telegrafiarako zuenarekin uztartzen zuena. Ascensio Martiarena pintore bikainaren anaia zen eta elkarte osatzen zuen Esteban Gurequizekin, La Voz de Guipuzcoa egunkariko erreportari grafikoa zenarekin. Euskadiko Filmategiko zuzendari Peio Aldazabalen iritziz, "Martiarena pioneroztat jo daiteke. Zinemarekiko maitasun handia sentitzen zuen gizona zen eta 35mm-ko kamera bat izateagatik pribilegiatua zen. Txekorketarena garai hartan egin zen lehen pelikuletako bat izan zen."

Martiarena Etxeak, optika denda zenak, 1924ko uda parte horretan hainbat kirol eta festa ekitaldi filmatu zituen. Film horiek Marokoko gerran



zauritutako soldaduentzat proiektatu zituzten Gran Casinon, garai hartan ospitale militar bihurtutakoan. Emanaldi eskuzabal hartan Maria Cristina erregina eta hainbat agintari izan ziren. Proiektatu ziren filmen artean, Corrida de beneficencia, Regatas de traineras, Becerrada benéfica en la que resultó herido Juan Belmonte, Carrera del Circuito Automovilístico, Fiesta de la Inauguración del Cementerio de los Ingleses, eta beste hainbat izan ziren. Film horietako hainbat zati gaur egun arte gorde dituzte. 1924 eta 1930a bitartean Martiaren Etxeak hainbat erlijio eta kirol gertakari filmatu zituen Donostian zein Gipuzkoako beste zenbait tokitan. Horietako zenbait erreportaje lokal komertzialetan ere proiektatu zituzten zegokienean. La becerrada de Euskal Bilera (1925)

lanaren estreinaldiak arrakasta handia izan omen zuen, esate baterako. Filma Antzoki Zaharrean eman zuten Buster Keatonen "Campeón de tiro" lanarekin batera.

Zumaian aurkeztuko diren bi filmei dagokienez, pelikula horiek Zaragozako Filmategian agertu ziren, pertsona bati erositako bilduma baten barne. Filmategi guztien artean dauden harreman onak direla eta, Euskadiko Filmategiak bilduma hura aztertu zuen Euskal Herria gaitzat zuen edozein film aurkitzeko asmoz. Bilduma hartan bi film horiek agertu ziren eta Zaragozako Filmategiaren baimenarekin berriztatzearen prozesuaren hasi zen Euskadiko Filmategia, herri baten memoria historikoa gordezko asmoz.

Nikol  Enea

TABERNA

Amaiako plaza

Tel. 861440



Zoruen kutxilaketa eta barnizaketa
Parketa jartzea

Estazioko kalea, 12

Tel. 861412

Ezkerrean "Ongintzako Txekorketa Zumaian" 1924ko filmaren irudia, eta azpian "Arritokietako Andra Mari Amabirjinaren Koroazioa" 1930.



"Pelikula zahar hauek edozein lekutan ager daitezke, proiektzio kabina batean, etxe partikular batean edo pelikulen almazen batean. Lata batzuk agertzen diranean identifikatzeari ekin behar zaio. Abentura hutsa da pelikula zaharrak aurkitzearena" jarraitzen du Aldazabalek. Horren adibide bezala, aipa daiteke Amabirjinaren Koroazioaren beste kopia bat agertu dela Zumaian orain gutxi.

Berriztapen prozesuari dagokionez, materiala jaso ondoren, aztertu egiten da nola kontserbatu den jakiteko. "Pelikulak zaharrak direnean, badakigu beti ere errore batzuk izango dituztela. Hasiara batean pelikulak garbitu egiten dira xaboi neutro batekin, elastizidade bat lortzeko. Ondoren pelikula fotogramaz fotograma berregin egiten da, eta

segurtasuneko negatibo bat sortu. Zine mutuaren garaian, filmak segundoko 16 imajinetan filmatzen zen. Hemen 24 imajinetara pasatzen

dugu zinean mugimenduak era naturalean ikusteko. Segurtasuneko negatibo honetatik kopia bat ateratzen da, kopia 0 deiturikoa, eta hor pelikularen akatsak ikusten ditugu. Horren ondoren talonizatu egiten dugu. Pauso horretan akats batzuk kentzen saiatzen gara, kontrasteak, etab. Azkenean behin betiko kopia ateratzen da, bere akats eta gauza onekin". Segurtasun kopia honek 300 urte inguruko bizitza du. Berriztatutako lana bideo formatorra ere pasatu da.

Aurkitutako originalak Zaragozako Filmategira bueltatu dira hemen kopiak atera ondoren. "Oso arriskutsua da pelikula zahar horiekin lan egitea, zelulosazko nitratoarekin eginikoak dira, errez su hartzen dutenak. Material horrek su hartzen

duenean ezin da inondik inora itzaldtu. Oso zaila da pelikula horrekin lan egitea, makinan jarri eta berehala puskatzen baita. Originalak gorde egiten dira badaezpada ere" dio Filmategiko zuzendariak. "1950 baino lehen egindako filmen soportea, pelikula bera, oso arriskutsua da. Su hartzen badu gela oso bat leher daiteke. Pelikula hauek ez dira artxiboetan gordetzen, bunker batzuetan gordetzen dira".

Bi pelikulen berriztapen lanak milioi eta erdi pezeta inguru kostatu da, eta horretarako Euskadiko Filmategiak Gipuzkoako Foru Aldundiaren eta Eusko Jaurlaritzaren laguntza izan du. Peio Aldazabal penatuta agertzen zen bere garaian Zumaiaiko Udalarari dirulaguntza eskatu baitzion. "Dirulaguntza hori jasoz gero berriztapena urte pare bat lehenago egingo zen. Laguntza hori ez jasotzean, prozesua atzeratzen joan da" dio Aldazabalek.

Peio Aldazabalen esanetan "Badakit gauza hauek ekintza gertatzen den herriaren arimara heltzen direla eta espektazio handia egongo dela. Film hauek, berriztatu ditugun beste herri batzuetako pelikulak bezala, pare bat aldiz ikusi behar dira gutxienez, lehenengoan jende guztiak familiartekoren bat ikusi nahi izaten baitu. Konturatzen denean bere familiako inor ez dela filman agertzen, pelikula behar bezala ikusten da. Zumaian aurkeztu ondoren, pelikula Euskadiko Filmategian ikusteko aukera izango dute gaien interesatuak dauden guztiek".

◀ JUAN LUIS ROMATET

OPTIKA ZUMAIA



Txomin Agirre kaia, 6
Tel./Faxa: 943-143057
Z U M A I A



Rakel
apaindegia

kiromasajea
tatuajeak

Alta Mari 42, behea TEL: 943 862093

ekaina

LIBURU AURKEZPENA

Labayru Ikastegiak moldatutako "Domingo Agirre-ren sermoiak" liburua aurkeztuko da. Aurkezpenean bi hitzaldi izango dira. Sebastian Garcia Trujillo, lanaren egileak "Domingo Agirrereren garaia, pentsamoldea eta eragina", eta Adolfo Arekita, Labayru Hizkuntza Sailaren arduradunak "Euskarazko ondare idatzia berreskuratzen".

► Ekainak 23, ostirala, 19etan,
Foronda Kultur Etxean

ZUMAIKO XII. ARGAZKI LEHIAKETA

Oinarriak dagoeneko kalean dira. Azken urteetan bezala, txuribeltzeko atal bat izango da, eta bestea koloretako diapositibena; azken hori zumaiarrei mugatua da eta aurtengo gaia "Kirola Zumaian" izango da. Lanak aurkezteko epea ekainaren 23an itxiko da.

MARGO ERAKUSKETA

Gonzalo Etxebarriaren margo erakusketa.

► Ekainaren 16tik 25era, ostegunetik igandera 6.30etatik 8.30etara.
Oxford aretoan

ARTISAU AZOKA

15 arlo ezberdinetako artisauak lanean ikusteko aukera Iparragirre Anai-arreben trikitixa doinuek alaituta. 19.00etan, egun osoko festari amaiera emateko, Triki Ta Ke taldearekin dantzaldia plazan.

► Ekainak 25, igandea, goizeko 11etatik 14etara eta 5etatik 8etara,
Eusebio Gurrutxaga plazan

DIRULAGUNTZAK

Euskarazko ikastaroetako dirulaguntzak emango ditu Udaleko Euskara Batzordeak. Bi deialdi izango dira: uztailaren 10a eta irailaren 10a. Baldintzak Zumaian errodutua izatea, klaseetan gutxienez %75eko asistentzia egiaztatzeko ziurtagiria aurkeztea eta ordaindutako matrikularen ordezkagiria eramatea. Matrikula kostuaren %75 itzuliko da, eta ikastaroan zehar langabezian egon dela ziurtatuz gero, matrikula osoaren balioa.

GANBARA MUSIKA.

Gu Geu & Carlos Casado: "klarine-tearen aukerak".

► Ekainak 18, 20.00etan
Forondan

SAN JUAN SUAK

Txistu Bandak alaituta.

► Ekainak 23, 22.00etan
San Juan iturrian

ZUMAI LORETAN LEHIAKETAKO AUKERAKETA

► Ekainak 27, goizean zehar

PELIKULEN AURKEZPENA

Euskal Filmategiak egokitutako bi pelikularen aurkezpena: "Arritokietako Anda Mari Amabirjinaren Koroazioa" (1930) eta "Ongintzako Txekorketa" (1924).

► Ekainak 27, 19.30etan
Aita Mari zineman

ZUMAIKO XII. ARGAZKI LEHIAKETA SARI BANAKETA

eta lan onenekin osatutako erakusketaren zabaltze ekitaldiak.

► Uztailak 6, osteguna, 19.00etan
Forondan

HERRIKO ABESBATZEN TOPAKETA:

San Pedro Txiki eta txikiak, Parrokiko San Pedro eta Beheko Plaza.

► Uztailak 8, larunbata, 22.30etan
Mari kalean

KALE ANTZERKIA

Txusma taldearen : Vöjnirek Familixe.

► Uztailak 9, igandea, 19.30etan

ERRUSIAKO MUSIKA BANDAREN EKITALDIK

► Uztailak 15, larunbata, 20.00etan
kalejiran eta 22.30etan

Eusebio Gurrutxaga plazan

TXOKO
T
A
B
E
R
N
A



Artadi auzoa
Tel. 862189

Ur-gintza s

SANEAMENDUA - KALEFAKZIOA - GAS INSTALAKUNTZAK
GAS NATURALA - INPERMEABILIZATZEA
ERAIKUNTZA LANAK - BAINUGELAK
SUKALDEKO ALTZARIAK

Iraeta auzoa z/g
20740 IRAETA - ZESTOA

Tel. 148082
Faxa: 148124
78 postakutxa

ARROZTEGIA
Urola 2000, s.l.

*Eraikuntzen akabera eta dekorazioa
*Baserrien zaharberitzea
*Enbarkazio konponketa
*Ate, zokalo tarima eta pertsianak
*Armairu enpotratuen aurrealdea
*Aroztegi metalikoa

Basusta bidea z/g Tel. 143505

Rosi
garbiketak

* Etxeak eta dendak
* Enpresa eta auzo lanak
* Erropa garbiketa eta tintaketa

Basadi,3-A
Tel. 861670

BELARDENDA SIWA

Izaga Garcia
DIETISTA
Esther Blanco
OSTEOPATA - MASAJISTA

Basadi, 5-C behea Tel. 143404 - 860012


INMOBILIARIA

TALI

BIDAIK

Ortega y gasset, 1 Tel. 143361 - 143323

Zelai Azpi 2000



Aurten ere Zelai Azpiko lagunek ireki dituzte beren tailerreko ateak eta handik pasatu nahi izan duen guztiak izan du maiatzaren 20tik ekainaren 4ra bitartean haien sormen proposamenak ikusteko eta egile beraiekin hitz egiteko aukera. Egiten duten balorazioa positiboa da, jende dezente joan baita Ardantzabideko lokalera euren lana ezagutzeko gogoz.

Bakoitzak lokalaren zati bat hartu du, horrela Ander Hormazurik alanbrez eginiko instalazio bat eta objektu eskultoriko batzuk jarri ditu, Txiki Agirre "Keixetak" bere ibilbide pertsonalean aurrera darrai pintura informal, expresionista edo kalifikatiborik gabeko horretan, ohiko koadroez gain zoruan eginiko interbentzio bat ere prestatu du. Barbara Stammelek itsasoan aurkitutako oholak, eskaiolazko objektuak, hondakin industrialak eta abar erabiliz muntaia bat egin du bere txokoan, haurtzaro posible bateko jostailu handiak izan daitezkeenak asmatuz, bortitzeziak agian haurtzaroarekin erlazionatzeko. Eta azkenik Aran Santamariaren mundu berezia, isiltasuna espresabide, kolore basikoak,

keinuak beste hizkuntza batzuen adierazle, kaxa eskultoriko eta diapositiba proiektioetan aurkeztuak.

Orokorrean lan proposamen oso ezberdinak planteamendu, teknika eta emaitza aldetik.

Anderren iritziz bere lanen aurrean jartzerakoan ikusleak paper aktiboa jokatzeko du, ez da obren gainean azalpen zehatzik ematearen aldekoa. "Hor badaude bi-hiru istorio, baina obrak berak esan behar du zerbait, ikusle bakoitzak atera behar du bere inpresioa. Gauza batzuk garbiagoak dira, besteak subliminalagoak eta norberak atera behar ditu bere konklusioak". Bere instalazioari buruz hitz egitean "kasu honetan elementu oso-oso basikoak erabili ditut: zuriz margotutako hormak, argi-itzalen kontrasteak, elementuen sinplifikazioa... betidanik erabili izan ditudanak historiak dira eta oraindik azaltzen dira".

Kanpora begira ez du beste artisten eraginik ikusten bere obra egiterakoan: "Eragin handiagoa nuen lehen, orain artistengan baino gehiago obra konkretuetan ikusten dut hori".

Aranen kasuan, Anderrenean gertatzen den bezala, aldaketa bat nabaritzen da, bi dimentsioetatik emaitza eskultoriko edo espazialagoetara pasatzeak eragindakoa. Aranek erabiltzen dituen materialen eta tekniken erregistroan ere garapen nabaria izan du. Horrela, egurrezko kaxen ondoan, argiaren erabilera aurki dezakegu, edo soinua, transparentziak, diapositibak, eta eguneroko bizitzatik ateratako objektu ezberdinak (pezera, oihalak, sugus gozokiak, etab.). "Sekuentziaren ideia landu dut hasieran lorearen piezan, hortik jarraitu nuen fotokopiekin eta paperekin lanean. Gehienbat hitzik gabeko hizkuntza hartu dut kontuan, isiltasunaren proposamena egiten zen fotokopietan, eta horrez gain gormutuen hizkuntzaren keinuak erabili ditut. Hitzik gabe nola komunikatzen garen, hori interesatzen zitzaidan". Eraginen aldetik beste hainbaten artean Eulalia Baldosera aipatuko luke.

Barbararen lanek oso inpresio ona sortu zuen jende gehienarengan, orain arte beregandik ezagutzen genuen pintura, paperezko zaku gainean margotutako erretratu haiek, oso interesgarriak baziren, oraingo muntaia jendea asko harritu du. Lehen esan bezala, gogor samarra ikusteko, mugimendu povera italiarra gogoratzen zuten prozedurak erabili ditu. Hala ere eragin zuzenagoa izan dezake orain bizi duen amatasun egoera berriak, semetxoa izan baitzuen duela gutxi, hortik jostailu itxurako eskultura handiak edo karrotxoak. Tamalez kanpoan zen eta ezin izan genion zuzenean galderarik egin.

◀ **JON MANTZISIDOR**

SOLOZABAL AUTOESKOLA

- Klase teorikoak zein praktikoak norberak nahi dituenean

- Klase teoriko ikusentzunezkoen abantailak erabili

- Merkantziak eta bidaiariak garraiatzeko eta nazioarteko agentzietarako ziurtagiriak lortzeko ikastaroak

P. Etxezarreta, 19 bis

Tel./Faxa: 861416




gidatzeko baimen guztiak







liburuak
aldizkariak
CDak
komikiak
eta
fantzineak

ERRIBERA 10
TEL: 943 86 21 14

Amets egin edo ez amets egin.....



<p>Txinako empenatziza nintzela amets egin nuen.</p> 	<p>Lorategi eder horietan paseatzen nintzen</p> 
<p>Egun batean gudako gizonak ailegatu ziren</p> 	<p>Eta dragoi beltzak den-dena txikitu egin zuen</p> 

Neil Armstrong nintzela eta ilargira ailegatu nintzela amets egin nuen.

Urtats txiki bat gizon-emakumeentzat urtats jigante bat gizateriateentzat.



Hollywoodera joan nintzela amets egin nuen. Aktore haundia izango nintzateke.



Rodolfo Valentinorekin lan egingo nuke.




"Mon amour"



Minien soneak ikusman bere palaritate izango nintzateke

Ez
Ez
DUT
HIL
NAHI

Exploratzailera
izan nintzela
amets egin
nuen, kultur
berriak
begiztatu nahi
nuen,



Baina
haien
afarirako
platera ez
nuen
izan
nahi.

Hainbeste gauzak amets egin nituen.....



edo tximetela bat



Ez dakit...
Pihar beste egun
batean izango da
eta agian
ABBA
taldeko abeslaria
izango naiz

MAMMA MIA!



..... hor dago gakoa.

argazki zaharra



Francopeko garai ilunaren barruan, 60eko hamarkadan, euskal pizkundearen garaia sortu zela esan dezakegu: espaiolaren eraso bortitzaren kontra ikastolen sorrera, euskal antzerkiaren berpiztea, ipar aldetik zetorkigun kanta euskaldun eta abertzaleen hastapenak eta abar. Joxe Agustin Larrañaga "Emeterio" nahiz eta Chiquito de Artadi tabernako zoko batean baxoerdi bat mahai gainean zuela eserita egon egunero, euskal sustraitik sortutako mugimendu hura pozez eta itxaropenez ikusten zuen. Garai hartan zapatueta zein igandetan Zumaian asko kantatzen zen tabernaz taberna. Itsasertzekoak asko. Koadrila abertzaleak Iparragirreraren kantak eta "Aitorren hizkuntza zaharra" ere bai. Abertzaletasun mugimendu honekin lotuak zeudenak Iparraldeko Mitchel Labegeriren disko txikia ezkutuan lortu, kantak ikasi eta, hasieran beldurrez eta gero ausarki, kantatzen hasi ziren. "Txikito"nean "Gu gera Euskadiko gazteri berria" kantatu genuen batean, Emeterio bere mahaian erabat hunkituta, negar malkoak begiartzetan

dantzan zebilzkiola, "horrela mutilak!" esan zigun. Urte hartako San Telmoetan Emeteriok herriaren aurrean adoretzu erakutsi zuen norekin zegoen. Arrantzale ohia zenez kofradiako bandera berdea eskuetan zeraman. Eguraldi iluna zegoen eta ipar-mendebal aldetik haizeak bortizki jotzen zuen. San Telmoren iristen ari ginela hain gogor hasi zuen jotzen haizeak, non Emeterio bandera ia eraman ezinik ibili baizen, hala ere ez zuen eskeini zitzaion laguntza onartu nahi izan. Ikurrina balitz bezala berak bakarrik eraman zuen bandera ermitaraino. Jada gora iristear, gogor zebilen haizeari borroka irabaziz "Gora Euskadi askatuta!" deiadarra bota zuen. Abertzaleak hain pozik entzundako independentziaren aldeko berrestapen hura ez zitzaieen hainbeste gustatu ezpainak okertu zituzten frankista zumaiei. Hurrengo urteko San Telmoetan, leku hartantxe bertan, San Telmo bidetik Goiko Torrerrantz zihoan altako kablean eguzki argitan eder agertu zen ikurrin bar jarri zuten ETako mutilek gauaren laguntasunaz.

ttikittaka

haur oinetakoak
 BALTASAR ETXABE Z/G TEL: 943 - 14 31 00 ZUMAIA

TXALAPARTA
O P A R I A K
 Angeles Sorazu, 2
 Tel. 143089

ESTAZIO Kalea, 25 20.750 ZUMAIA
 GIPUZKOA Kalea, 33 C 3º 20.800 ZARAUTZ
 (GIPUZKOA)
 Tel. (943) 86 07 78 - (943) 14 09 40


TXINGURRI
 Koop. Elk.
 Nekazaritza Injeneru Teknikoak

Jardinen diseinu
 ... mantenerendua
 Nekazaritza zerbitzuak
 Krokizelaien mantenerendua
 Txostenak ...
 aholkularitza teknikoak
 Balorazioak



Alai auzategia, 12 Tel: 943 86 02 58 ZUMAIA

Itzurun zuhaitz bidea, 1 Tel: 943 86 24 30 ZUMAIA



- Txarkuteria bikaina
- Inguruko baserrietako haragirik onena
- Geuk aurrez prestatutako jaki goxoak

berria!

XSARA

Picasso

ZUMAIA MOTOR



**CITRÖEN
ZERBITZU
OFIZIALA**

Santixo auzoa, 22 Tel. eta Faxa : 943 143 143

mekanika orokorra • erakusketa • salmenta • bigarren eskuko autoak

KOSTA GAS C.B.



ZERBITZU OFIZIALA


ETXEZARRETA, 6
ZUMAIA
TEL. 861078

KALEFAZIO ETA GAS INSTALAZIOAK

PRESUPUESTOAK ZURE NEURRIRA
EGITEN DITUGU.
ESKA EZAZU ZEUREA INOLAKO
KONPROMEZURIK GABE

Zatoz eta galdetu

GAS NATURALA
BUTANO
PROPANO



DORNUTEGI SUKALDEKO HALTZARIAK

Basadi auzoa, 10 behea Tel: 943 86 20 51

- S Sukalderako hornikuntza diseinuak.
- Lanen zuzendaritza.
- Edozein sukaldetara moldaturiko diseinu bereziak.
- Kalitate-prezioan parekorik ez.

